



HMBERRIAK

HERRI MUSIKAREN TXOKOAREN BULETINA

2012ko maiatza
41. zenbakia

XIROLARRUA-GAITA DE BOTA EUSKAL HERRIAN ETA ERRIOXAN

Herri Musika Bilduman lehenengo aldiz erabili den CD-liburu formatuan argitaratu da lan berria

2004an martxan jarri genuen formatu ezberdinetan eskainitako gure argitalpenak biltzen dituen Herri Musika Bilduma (HMB) izeneko bilduma. Geroztik herri musikaren esparru ezberdinetako gai ei buruzko bederatzizko liburu (horietako batzuk DVDarekin) eta zenbait CD, DVD eta CDRom argitaratu ditugu. Oraingo honetan HMB bilduman formatu berria estreinatuko dugu: testua, argazkia eta hotsak biltzeko gaitasuna duen CD-liburu formatua.

Zenbaki berri hau Juan Mari Beltran euskal musikariak eta Fernando Jalón errioxarrak egin dute. Lanari *Xirolarrua* izena eman diote eta ehun orrialdetan soinu-tresna honek, zahagidun gaitak, gure artean izan duen presentzia jorratzen eta azaltzen du.

Urte asko pasa dira gure artean zahagidun gaita edo kornamusaren hotsa azkenekoz entzun zenetik. Baina, gure herri kulturari buruz

Euskal Herriko nahiz kanpoko biltzaile eta ikertzaileek egindako lanari esker eta dokumentu zahar askotan ikus dezakegunez, garbi da garai batean eta gure artean soinu-tresna honen egoera bestelakoa izan zela.

Dokumentazio zahar horretan izendapen ezberdinekin ageri da, hala nola *Cabreta*, *Tuta*, *Txaranbel*, *Bota* edo *Gaita*. 1745ean Aita Larramendik idatzitako hiztegian *chirolarrua* izenarekin ageri da eta Pierre Lhandek idatzitako hiztegian, 1926an argitaratutakoa, *Xirolarru* bezala.

Bestalde, proiektu honekin egileek gaur egun hots eta soinu-tresna hauen erabileraren alde ematen ari den mugimenduan parte hartu nahi dute, bai soinu-tresna hauek izan dituzten tradiziozko funtzioetan, bai eta egungo inguru eta giroan, atzoko eta gaurko musika jotzeko, edota sor daitezkeen berrietan ere.

Liburua bi ataletan banatuta dago:

1. *Xirolarrua - Gaita de bota Euskal*

herrian eta Errioxan:

Atal honetan soinu-tresna hauen erabilerari buruz aritzeaz gain, *Xirolarrua* izeneko proiektu honen bilakaera eta egileei buruzko informazioa eskaintzen da; baita CDan entzun daitekeen erreperitorioa osatzen duten piezen banan banako azalpenak ere. Bukatzeko, grabatutako pieza guztien bi soinu-tresnetarako idatzitako partiturak ageri dira.

2. *Xirolarrua. Zahagidun gaita Euskal Herrian:*

2004ko Ourenseko "Anuario da Gaita" urtekarian argitaratutako Juan Mari Beltranen *Xirolarru-Gaita. La cornamusa en el País Vasco* artikuluan oinarritutako idazlan honen orrialdeetan garbi ageri da soinu-tresna honek gure lurraldeetan izan duen presentzia oso nabarmena izan dela. Atal honetan, azken garaietan zahagidun gaita eta gaita-dultzainaren artean sortu den izendapen edo identifikazio nahasketak ere landu da. Sortu den nahasketaren arrazoietan bereziki aipatu beharrekoak dira bi soinu-tresna hauek kasu askotan izen berarekin izendatuak izatea, plaza, erreperitorio eta funtzioak konpartitzea, baita behin baino gehiagotan soinu-tresna bat edo bestea jotzen zuena pertsona bera izatea ere. Agerikoa da ere bi soinu-tresna hauek gure herri musikako erreperitorioaren zati handi bat konpartitu dutela, eta batzuetan taldekatuz jo dutela.

Bukatzeko, zera esan behar dugu, gure hamargarren urteurrena ospatzen ari garen honetan martxan jarri dugun bildumaren atal berri honekin, gure helburua hemendik aurrera halako formatuan beste lan berri asko argitaratzea dela. Argitalpen hauetan, testu, irudi eta hotsen bitartez herri musikaren inguruko soinu-tresnei, musika taldeei, eskualdeetako kantu eta dantzei buruzko lanak edo bestelako lan monografiko integralak eskaini nahi ditugu. Hala izan dadila!



KONTZERTUAK HM TXOKOAN

Udaberriko kontzertua

2012ko ekainaren 2an - 18:30tan

PACO DÍEZ

Musika eta kantu Sefardiak



**SARRERA
5 EURO**



EGITARAUA

1. La Cristiana Cautiva (*Marruecos*)
2. Buena Semana (*Marruecos*)
3. Tres Klavinas (*Turquia / Grecia*)
4. Koplas De Purim (*Marruecos*)
5. Alta Es La Luna (*Turquia / Grecia*)
6. Asheriko (*Bulgaria*)
7. Pai Pero (*Marruecos*)
8. Ventanas Altas (*Grecia*)
9. Moshé Salió De Misrayim (*Marruecos*)
10. En El Kafé D'Amaneser (*Turquia*)
11. Gizado De Berendjenas (*Grecia*)
12. Hi Torá Lanu Nittana (*Marruecos*)
13. Pesah A La Manu (*Bosnia*)

Italian, Grezian, Suedian, Eslovenian, Bulgarian, Israelen, Perun, Txilen, Argentinan, Paraguayen, Estatu Batuetan eta abarretan.

Paco Díez izen handi bat baino gehiago ere bada folkloreaken munduan.

Kontzertu honetako egitaraua Errege Katolikoek XV. mendearen bukaeran kanporatu zituzten judutar espainiarrek beraiekin eraman eta beraien Sefarad-etik (Espainia) at espainiarrek beraiek baino freskoago mantendu dituzten Iberiar Erromantze Zaharrek osatzen dute. Tartean Balkanetan eta Marruekos hitz egiten diren *djudezmo* eta *haketia* hizkuntzetan kantatutako abesti liturgiko eta erdi liturgikoak daude. Beste batzuk, errepikadun koplak eta belarrira atseginak diren abestiak dira, edozein kasutan entzuleak parte hartzera deitzen dituztenak.

Emanaldian zehar Paco Díezek abestitik abestira doan tartean "españolikoen" (sefardien) historiari buruzko kontuak aipatzen ditu, Espainiatik kanporatuak izan zirenetik orain arte gertatutakoak.

1961an Valladolideko Piñel de Abajo herrian jaio zen, Gaztelako barne-barneko nekazari familia batean, eta bere haurtzaroan desagertzear zegoen giro hartako sentitzeko eta pentsatzeko eran parte hartu zuen. Frantses filologian lizentziatua, 80ko hamarkadan urte pare bat eman zuen Britainian (Brest eta Lorient) lanean. Horrek inguru hartako folk talde eta kultura tradizionalaren inguruko zentroak ezagutu eta haiekin harreman estua lortzeko aukera eman zion. Ordurako, 1975etik hasia zen Gaztela eta Leongo musika tradizionala berreskuratu eta zabaltzeko lanetan, eta geroztik bere lurraldeko musikaz gainera besteetako ere ezagutu eta haiekin aberastekoa izan da.

1980an La Bazanca taldea sortu zuen, eta bertan hartu zuten Paco Díez eta bere ahots, gitarra, zanfona, gaita eta perkusio tresnek gaur duten nortasuna, beti ere etxez etxe egindako herri jakituriaren bilketak emandako aberastasuna oinarri hartuta. Bakarleri gisa, gaur, musika judu-hispaniarraren erakusle nabarmenenetakoa da, La Bazancarekin 1983an "Canciones Sefardies" diskoa grabatu zuenean hasi eta 2000n bakarrean "Romanzas de Amor Sefardies" disko-arteko ibilbidea horren lekuko. Denera 16 disko grabatu ditu, baina bere espezialitatea penintsulako herri soinu-tresnena da, eta milaka kontzertu eta konferentzia emana da dagoeneko Frantzia, Alemanian,

JUAN MARI BELTRAN & FERNANDO JALÓN

Xirolarrua



Juan Mari Beltran (Donostia, 1947) eta **Fernando Jalón** (Alberite de Iregua, 1966) 1991tik elkarrekin ari dira herri organologiaren esparruan lanean. 1997an "txun txun" marka sortu zuten eta izen horrekin merkaturatzen dituzte besteak beste ttunttunak, xirulak, gaita de bota-xirolarruak, dultzainak, txalapartak, kanaberak eta txaramelak.

Oraingo honetan Xirolarrua deitu duten proiektua prestatu dute eta hiru dira nagusiki zuzeneko emanaldiaren formatuan aurkezten diguten lan honen aurrekariak:

- Fernando Jalón partaidea zela, Errioxako *El Entresaque* taldeak soinutresna honen alde egindako berreskuratze lana. Honen ondorioz, eta Errioxako gaita zaharren piezetan oinarrituta talde honek 1991an berreskuratutako gaita de bota berria aurkeztu zuen.

- Beste urrats garrantzitsua Ourenseko "Escuela Provincial de Gaitas" eskolako arduradunen eskaerari erantzunez Juan Mari Beltranek soinutresna honen inguruan egin zuen ikerketa lana izan zen. Lan hura 2004ko "Anuario da Gaita" urtekarian argitaratu zen *Xirolarru-Gaita. La cornamusa en el País Vasco* izenburuarekin.

- 2009ko uztailean zahagidun gaita eta dultzainaz osatutako musika bikote hau Italiako Molise aldeko Scapolin ospatutako *XXXIII Festival Internazionale della Zampogna* jaialdian aurkeztu zuten. Jaialdi hartarako aukeratutako errepertorioa *gaita de bota*-ren pieza eta xirolarruaren ezauzgarriekin ongi egokitzen diren herri errepertorioko beste doinuekin osatu zuten.

Esperientzi zoragarri hark bultzatu zituen ibilbide honi jarraipena ematera eta horrela, errepertorio bat presta-

tu eta informazio liburuxka baten laguntzarekin CD batean grabatzea erabaki zuten.

Grabatutako CD honetan oinarriturik antolatu dute zuzeneko emanaldia. Nagusiki errioxar *bota* eta dultzainaz osatutako talde moduan ageri bada ere, pieza batzuetan txirimiak dultzaina ordezkatzeko du eta besteetan bikotea Landetako *boharekin* xirula eta ttunttunak osatzen dute.

Kontzertuko egitarauak bere baitan, Errioxa, Kostaldea eta Pirinio aldeetako dantza, erritmo eta estilo melodiko ezberdinez osatutako barietate handiko herri doinu eta piezak hartzen ditu, baita erritmo eta forma tradizionaletan oinarritutako, xirolarruarentzat sortutako pieza berriak.

EGITARUA

1. Errioxako kalebuelak
2. Ozkabarte
3. Gure atsegina
4. Arin-arin Martirieta
5. Euskal baleazaleak
6. Zelatun (pasodoblea)
7. Hernaniko buruhandien dantza
8. Añarxume
9. Mazurka zuberotarra
10. Kadrile Copain mauletarra
11. Hau dantza
12. Naxerako Buelak
13. Jota Montte
14. Porrusalda Montte
15. Britainiako Dantzak / Italiako Tarantella
16. Baztango Sagar-dantza
17. Danbolinteroekon kontrapasa
18. Zaragi dantza
19. Orhiko xoria
20. Txulalari
21. Tximistarri



Udaberriko kontzertua SOINUENEA - HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Afaria Auzokalte Elkartearen izango da, kontzerturako erabiliko den areto berdinean. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.

Prezioa (kontzertua barne): 20 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:





Bisita gidatu batean xirolarrua jotzen. HMT

HERNANIKO TXISTULARI JAIALDIA

2012ko martxoaren 24 eta 25ean ospatu zen Hernaniko VIII. Txistulari Jaialdia, Hernaniko txistulariek antolatua, Hernaniko Udalaren babesean eta Euskal Herriko Txistulari Elkarte eta Herri Musikaren Txokoaren laguntzaz. Larunbatean, Txistulari Gazteen VIII. Lehiaketan, Euskal Herriko 58 txistulari eta atabalari gaztek hartu zuten parte: Agurain, Gasteiz, Bilbo, Durango, Atarrabia, Bera, Berriozar, Doneztebe, Ezkirotz, Iruña, Tafalla, Zizur txikia, Azpeitia, Donostia, Hernani, Irun, Pasaia eta Zestoa, nahiz Berriozarretik inguratutakoak.

12 urte edo gutxiagoko bakarlarrien kategorian Amaia Erasok eraman zuen txapela, 13-16 urte bitartekoenean Ainara Martínezek, eta taldeen kategorian Iruña Taldeak. Txapel guztiak Iruñara joan dira beraz, aurtengoan.

Igandean, giro ederrean txistularien topaketa ospatu zen, goizeko hamarretan dianak joaz hasi eta eguerdian dantza saio ederra eskainiz Hernaniko Plaza Berrin. Arratsaldean, lagun arteko bazkaria, txistu doinuek jarraitu zuten, ohi denez, herria alaitzen.



Oiartzungo plazan Alkarkidekoekin dantzan. HMT

HAURRENTZAT KONTZERTUAK

Herri Musikaren Txokoaren jarraitzaileen artean ezaguna denez, bere sorreratik izan dira bertan urtaro bakoitzean herri musika kontzertuak. Kontzertu hauen inguruan hausnartu ondoren zenbait aldaketa egitea interesgarria iruditu zaigu, tartean txikienei musika mota hau eta berau jotzeko erabiltzen diren soinu-tresnak gehiago hurbiltzeko asmoz kontzertu didaktikoak proposatzea bururatu zaigu. Printzipioz ez dute maiztasun finkoa izango eta HM Kontzertua emango duten taldeen arabe-rakoa izango da.

Hala, hurrengo ekainaren 2an Juan Mari Beltranek eta Fernando Jalonek elkarrekin Xirolarrua zer den eta nola funtzionatzen duen azalduko dute hau ardatz hartuta Oiartzungo Ergoien auzoko Auzokalte elkartearen eskainiko duten emanaldian joaldiak eta azalpenak tartekatuz.

Haurrei zuzendutako kontzertu honetarako hitzordua 12:00etan jarri da eta hiru ordu laurdenen bueltan iraungo du. Sarrera doan izango da.



Adin guztietako txistulariak bildu ziren Hernaniko kaleetan herritarrekin beraien festa ospatzeko. HMT

10. URTEURRENA OSPATZEN

Martxoaren 1ean bete zituen Herri Musikaren Txokoak 10 urte. Horri lotuta urtean zehar ahalegin berezi batekin hainbat ekitaldiren bidez urteurrena ospatzen ari da.

Otsailak iraun zuen bitartean argazki erakusketa egon zen Oiartzungo Mendiburu kalean dagoen Garmendia txokolategian.

Martxoaren 17an herri musika eskolen topaketa izan zen: Oiartzun, Hernani, Alberite de Iregua (Errioxa), Donibane Lohitzune, Deba eta Lizarrako eskolak elkartuz. Martxoaren 25ean, Alkarkide Euskal Dantza Taldekoekin dantzaldia izan zen Oiartzungo Doneztebe enparantzan. Lehenengo, dantza taldekoek euskal dantzen erakustaldi bat plazaratu zuten eta segidan, musikariak oholtzan zeudela aprobetxatuz gerturatutako kideekin batera aritu ziren, tartean Dantza Plazan ekimenekoak zeudela.

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 1302
Antolatutako taldeak: 51

Bisitari kopurua maizta arte: 33587

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 14680

SOINUENEA - HERRI MUSIKAREN TXOKOA



Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

www.herrimusika.org



OIARTZUNGO
UDALA